Carta de bienvenida

Ongietorri-gutuna

Itziar Astigarraga
Presidenta electa SVNP

Queridos pediatras y residentes de pediatría:

Asumo con mucha ilusión el nuevo reto de presidir la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría y agradezco de corazón vuestra confianza. Intentaré contribuir al avance y reconocimiento de nuestra profesión como pediatras y defender nuestra labor como especialistas responsables de cuidar la salud de los niños, niñas y adolescentes.

En primer lugar quiero destacar el excelente trabajo de la junta directiva anterior, tanto del presidente Dr. Javier Korta como del resto de compañeros salientes, por su dedicación al servicio de la pediatría en Euskadi y Navarra. Han conseguido dinamizar la sociedad, desarrollar un interesante programa formativo, avanzar en la cohesión y coordinación asistencial, defender la atención pediátrica especializada a nivel de primaria y hospitalaria, la asistencia pública y privada, participando en numerosos grupos de trabajo e iniciativas para defender el derecho de nuestros pacientes pediátricos a tener una atención especializada y de calidad.

En la nueva junta directiva continuaremos trabajando con la máxima dedicación y esfuerzo, con el objetivo final de mejorar la atención y la calidad de vida de los niños, niñas y adolescentes, tratando de contribuir a aumentar los resultados en salud durante la infancia y adolescencia. Buscaremos la colaboración de los responsables sanitarios, de las instituciones dedicadas a la infancia y de todas las sociedades científicas relacionadas con la atención pediátrica. Para todo ello, esperamos contar con la participación y propuestas de todos vosotros, los socios y socias de la SVNP.

Es tiempo de mirar al futuro y de plantear nuevos retos, con el máximo respeto a la exce-

Pediatra eta pediatriako egoiliar maiteak:

Ilusio handiz onartzen dut Euskal Herriko Pediatria Elkarteko lehendakaria izateko erronka berria, eta bihotzez eskertzen dizuet zuen konfiantza. Gure pediatra-lanbidean aurrerapenak eta aintzatespena lortzen saiatuko naiz, eta haurren eta nerabeen osasuna zaintzeko espezialista gisa egiten dugun lana defendatuko dut.

Lehenik eta behin, aurreko zuzendaritza-batzordearen lan bikaina nabarmendu nahi dut, bai Javier Korta lehendakariarena, bai kargua utzi duten gainerako lankideena, Euskadin eta Nafarroan pediatriaren zerbitzuan egindako lanagatik. Elkartea dinamizatzea, prestakuntza-programa interesgarri bat garatzea eta laguntzaren kohesioa eta koordinazioa indartzea lortu dute. Lehen mailako eta ospitaleko arreta pediatriko espezializatua babestu dute, baita laguntza publiko eta pribatua ere, eta hainbat lan-taldetan eta ekimenetan hartu dute parte, gure paziente pediatrikoek kalitatezko arreta espezializatua izateko duten eskubidea defendatzeko.

Zuzendaritza-batzorde berrian, ahalik eta ardurarik eta ahaleginik handiena eskaintzen jarraituko dugu, haurren eta nerabeen arreta eta bizi-kalitatea hobetzeko, eta haurtzaroan eta nerabezaroan osasun-emaitza onak areagotzen laguntzeko. Osasun-arduradunekin, haurren arloko erakundeekin eta arreta pediatrikoaren esparruko elkarte zientifiko guztiekin lankidetza finkatzen ahaleginduko gara. Horretarako, zuen guztiok, EHPEko bazkideok, parte-hartzea eta proposamenak egitea espero dugu.

Etorkizunari begiratzeko eta erronka berriak ezartzeko garaia da, elkarteak 1966an sortu zenetik izandako ibilbide bikainari eta aurreko batzordeetan parte hartu duten pediatren lanari ahalik eta begirunerik handiena erakutsita. Talde berrian, ilusioz eta ahaleginez beteta arituko gara, "Pediatria eta bere Arlo Espezifikoak"

lente trayectoria de la Sociedad desde su fundación en 1966 y al trabajo de tantos pediatras que han participado en las juntas previas. En el nuevo equipo trabajaremos con ilusión y esfuerzo para promover el desarrollo de nuestra especialidad de "Pediatría y sus Áreas Específicas", defender los derechos de los niños, niñas y adolescentes, avanzar en la atención de calidad que necesitan, facilitar la coordinación entre los diferentes profesionales y ofrecer una atención integral que incluya tanto los aspectos sanitarios como los psicológicos, sociales y educativos.

Vamos a defender y desarrollar nuestra especialidad en todos los ámbitos, potenciar la asistencia pediátrica pública y privada, la atención primaria y hospitalaria, la pediatría general y las áreas de capacitación específica. Avanzaremos en nuevos modelos para facilitar la formación continuada de los pediatras, con una dedicación especial a los residentes de pediatría y pediatras más jóvenes, y colaboraremos con las enfermeras de pediatría y otros profesionales de educación, salud mental y servicios sociales.

Soñar en conseguir un futuro mejor para nuestra profesión y para los pacientes pediátricos que atendemos exige ilusión, optimismo, energía positiva y otras competencias que permitan avanzar, innovar e investigar, estableciendo una colaboración estrecha y participación activa con otras sociedades científicas e iniciativas internacionales.

Itziar Astigarraga
Presidenta Electa Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría

espezialitatearen garapena sustatzeko, haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko eta behar duten kalitatezko arreta emateko, profesionalen arteko koordinazioa bideratzeko, eta arreta integrala eskaintzeko, osasunari lotutako alderdiak eta psikologia-, gizarte- eta hezkuntza-eremuak aintzat hartuta.

Esparru guztietan babestu eta garatuko dugu gure espezialitatea, eta honako hauek sustatuko ditugu: pediatria-laguntza publikoa eta pribatua, lehen mailako eta ospitaleko arreta, pediatria orokorra eta berariazko gaikuntza-arloak. Eredu berrietan aurrera egingo dugu, pediatren etengabeko prestakuntza errazteko, eta arreta berezia emango diegu pediatriako egoiliarrei eta pediatrarik gazteenei. Gainera, lankidetzan arituko gara pediatriako erizainekin, baita hezkuntzako, osasun mentaleko eta gizarte-zerbitzuetako beste profesional batzuekin ere.

Etorkizun hobea lortu nahi dugu gure lanbidearentzat eta gure paziente pediatrikoentzat; horretarako, behar-beharrezkoak dira ilusioa, baikortasuna eta energia positiboa, bai eta aurrera egiteko, berritzeko eta ikertzeko bestelako gaitasunak ere. Gainera, lankidetza estua eta parte-hartze aktiboa izan behar ditugu nazioarteko beste elkarte zientifiko eta ekimen batzuekin.

Itziar Astigarraga
Euskal Herriko Pediatria Elkarteko lehendakari hautetsia